

EZ USTEKABERIK HARTU, AUTOA ALOKATU AURRETIK INFORMAZIOA JASO



Gero eta gehiagotan alokatzen dira autoak, hala turismo egiteko, nola lanerako.

Alokatzea erabakitzen baduzu, zeri erreparatu behar diozun eta nola jokatu behar duzun azalduko dizugu, arazorik izan ez ditzazun. Hona hemen hamar aholku.

- ◆ **Kontratua sinatu aurretik, ondo birpasatu baldintzak.** Espero ez dituzun klausula ugari egon daiteke, hala nola, kilometro kopurua, kontu korrontean blokeatutako diru-kopurua edo zigorrak. Gogoratu sinatzen duzun guztiaren kopia eskatzen.



- ◆ **Saiatu ez onartzen gasolina andela beteta egotea aurretik ordainaraztea,** enpresek erregaiaren prezioari gehigarria ezartzen baitiote. **Andela beteta egotea onartzen baduzu,** beteta itzuli, bestela falta diren litroak ordainaraziko dizkizute enpresak egoki iritzitako prezioan, merkatuaren prezioetik gora.

- ◆ **Autoaren aurretiko azterketari adi.** Egiozu zeuk ere azterketa eta txostenean ibilgailuak dituen kalte edo akats guztiak jasotzen direla egiaztatu. Atera kalteen argazkiak eta eskatu eman behar dizuten txostenean eranstea. Bestelako osagarriak ere aztertu: leiho jaso-gailuak, irratia, haizea, gps sistema...



- ◆ **Kontuz trafiko isunekin.** Kontrakoa adierazi ezean, ordaindu behar dituzu. Isunen jasotzailea alokairu-konpainia da, eta jakinarazpenak posta arruntaz bidaliko dizkizu. Horietan kobraketari buruzko informazioa emango dizu eta 30 € inguruko gehigarria kobratuko dizu kudeaketa gastuengatik.

- ◆ **Kilometrajeari dagokionez, mugagabea hartzea gomendatzen da,** batez ere distantzia handiak egingo badituzu.

- ◆ **Autoa adostutako epean itzuli eta bulego ordutegian.** Ordu bat edo bi beranduago itzultzen baduzu, egun bat gehiago kobra dezakete..



- ◆ **Autoa ez itzuli azterketa egin gabe.** Autoa parkingean uzten baduzu, atera argazkiak. Goizean aztertzen duen langileak edonolako kaltea zuri egozteko arriskua duzu. Horrela bada, frogagiria eskatu beti..

- ◆ **Erreserba Internet bidez egiten baduzu,** agian merkeago aterako zaizu alokairua, baina **egiaztatzeke mezua eskatu.**

- ◆ **Arrisku oroko aseguria hartzeko aukera kontuan hartu.** Alokairuarekin datozen aseguruiek normalean frankizia altua izaten dute. Arrisku oroko aseguria agian komeni da. Istripua edo matxura baldin baduzu, jarri harremanetan lehenbailehen enpresarekin.

- ◆ Azkenik, **autoa bueltatu ondoren begiratu zeintzuk kargu dituzun txartelean.**

